

Erabakia, behin betikoa, 2024ko otsailaren 29koa, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearena, Euskarazko Ikasmaterialgintza eta Eskuliburugintza sustatzeko proiektuen Balioeste Batzordearen 2024ko otsailaren 27ko agiri behin betikoa ontzat emateko dena (2023ko azaroaren 30eko deialdia)

Errektoreorde honen 2024ko otsailaren 29ko erabaki honen bidez, berresten da proiektuen Balioeste Batzordearen otsailaren 27ko agiri behin betikoa, Euskarazko Ikasmaterialgintza eta Eskuliburugintza sustatzeko 2023ko deialdian aurkeztutako eskaerei buruzkoa.

Horrenbestez, honako hau

erabaki dut:

Lehena eta bakarra.- Ikasmaterialen eta eskuliburuen proiektuak Balioesteko Batzordearen 2024ko otsailaren 27ko agiri behin betikoa eta han agertzen diren erabakiak ontzat ematea.

Leioan, 2024ko otsailaren 29an.

M. Juncal Gutierrez Mangado
UPV/EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen
arloko errektoreordea



Euskarazko ikasmaterialgintza eta eskuliburugintza sustatzeko 2023ko deialdia: Balioeste Batzordearen Behin betiko Agiria

2023ko azaroaren 28an argitaratu zen Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearen deialdia. Euskara Zerbitzuak eta Argitalpen Zerbitzuak abian jarria, euskarazko ikasmaterialgintza eta eskuliburugintza sustatzeko helburua duena.

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren eta Euskara Zerbitzuaren artean osatutako Balioesten Batzordeak bere agiri behin-behinekoa adostu zuen, eta otsailaren 1eko erabaki baten bidez argitaratu zuen.

Erabaki eta agiri behin-behineko horien aurrean, otsailaren 16a arteko epea finkatu zen erabakiaren aurkako helegiteak aurkezteko. Tarte horretan aurkeztutako helegiteak arduraz aztertu ondoren, eta behin betiko agiria argitaratzen dugu.

Ikusirik aurreko agirian onartu ez genituen kasuetan egoera ez dela nabarmen aldatu, eta aitorturik ezinezkoa zaigula lan gehiago geure gain hartzea ditugun giza eta finantza-baliabideak mugatuak izanik, erabilienak izango diren ikasmaterialak eta eskuliburuak baino ezin izango ditugu onartu; hortaz, urtarrilaren 30eko behin-behineko erabakia berresten dugu behin betiko erabaki honen bidez.

Honela gelditzen da deialdi honetako behin-behineko ebazpena (**oharra:** erredaktatzaile nagusiaren edo nagusietako baten NAN zenbakiaren arabera daude ordenatuta lanak; erredaktatzaile nagusiaren NAN zenbakia bidali ez den kasuren batean, eskaera bidali duen irakaslearen NAN zenbakia erabili dugu, izartxo batekin nabarmendu dugu).

- Ikasmaterialen eta Eskuliburuaren proposamen hauek ONTZAT eman dira:

NAN zkia.	Formatua	Modalitatea
14568270R	ESKULIBURUA	B
16054602G	ESKULIBURUA	A
16057300B	Ikasmateriala	B
30648790W	Ikasmateriala	B
30655108H	Ikasmateriala	A
44155593D	ESKULIBURUA	A
44559080F	ESKULIBURUA	A
45624488D	Ikasmateriala	A
72454039Z	Ikasmateriala	B
72455714X	Ikasmateriala	A
72459112G	Ikasmateriala	A



72465043R	ESKULIBURUA	A
72806507F	Ikasmateriala	A
78694457A	ESKULIBURUA	A
78928373D	Ikasmateriala	A
Y0956020Q	ESKULIBURUA	A

- Gure giza eta finantza-baliabideak mugatuak izaki, proposamen hauek **EZIN IZAN DITUGU ONARTU**:

NAN zkia.	Formatua eta Modalitatea	OHARRAK
14568270R	ESKULIBURUA B	Eskaeragileak aurkeztutako bi proiektuetatik bat (GLO izenekoa) onartu da eta bestea (GZO izenekoa) baztertu
15395845J	ESKULIBURUA A	Ikasle onuradunen kopurua baxua da.
30655108H	Ikasmateriala B	Duela gutxi argitaratua da aurreko idatzaldia
45915601B*	ESKULIBURUA A	Ikasle onuradunen kopurua baxua da.
72741992F	ESKULIBURUA A	Ikasle onuradunen kopurua baxua da.

OHARRAK:

1. ESKUIZKRIBUAK PRESTATZEKO ARAUAK ETA ONARPEN-BALDINTZAK:

- Eskuliburu-izaera, eta, ondorioz, argitaragarritasuna, behin betiko lana aztertu ondoren ziurtatuko da. Eskuliburu formatuan onartu den proiekturen bat ez baldin bada onartzen formatu horretan argitaratzea behin erredaktatua dagoenean, aukera emango zaie egileei ikasmaterial formatuan argitaratzeko.
- Litekeena da zenbait kasutan Balioespen Batzordeak lanaren luze-laburtasunaren inguruko gomendio/eskaera batzuk egitea erredaktatzaileei.
- Balioeste Batzordea egileekin harremanetan jarriko da lanaren erredakzio eta edizio-kontuetan egokiak iruditzen zaizkion oharrak helarazteko eta zalantzak argitzeko.
- Honako helbide elektroniko hau erabili behar da Argitalpen Zerbitzuko eta Euskara Zerbitzuko kudeatzaileekin harremanetan jartzeko: argitaletxea.deialdiak@ehu.eus

2. LANAK BIDALTZEKO MODUA ETA EPEAK:

Lanak behin erredaktatuak direnean, eta haien orrazte- eta edizio-prozesuari ekiteko, hona nora eta noizko bidali behar diren:

- Lanak NORA bidali: argitaletxea.deialdiak@ehu.eus helbide elektronikora.
- Lanak, **beranduenez**, NOIZKO bidali (lehenago ere bidal daitezke):
 - **A modalitateko lanak** igortzeko epea: **2024ko urriaren 1a.**
 - **B modalitateko lanak** igortzeko epea: **2024ko apirilaren 12a.**

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeari helaraziko zaio agiri behin betiko hau, hemen erabakitakoa berresteko eta parte hartzeko eskaera egin duten pertsoneri horren berri emateko.

Leioan, 2024ko otsailaren 27an.

Elisabete Alberdi Zelaia
Argitalpen Zerbitzuko zuzendaria

Jesus Mari Makazaga
Euskarazko Aholkularitza eta
Testugintzaren arloko zuzendaria